

Gonbidatu barrura

Ikastetxearen eta ikasle
etorkinen familien
arteko harremana
hobetzeko gakoak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EMPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES

Kulturaniztasuna onartzea eta gizarteratzea oinarrizkoak dira heziketan arrakasta lortzeko

Euskal Autonomia Erkidegoko
Herritar Etorkinen Integrazio eta
Partaidetza Sozialerako Foroaren
Hezkuntza Batzordeak sortu du
dokumentu hau.

Erantzunak ematea du xede, hain
zuzen ere, hezkuntza-komunitatean
eta, oro har, gure gizartean gero eta
sendotuagoa dagoen errealitate
multikulturalari.





Errealitate berri horrek erronka berriak sortzen ditu bizikidetzari dagokionez, eta beraz, **hausnarketarako eta eztabaidarako bideak** zabaldu behar ditugu, aurreiritziak gainditu eta besterenganako tolerantzia eta irekitzea indartzeko; hartara, gizarte orekatuagoa eraikiko dugu.

Jardunbide egokiak familia etorkinen eta ikastetxearen arteko harremanetan:

Horretarako, dokumentu honen bidez gurasoen federazioak sentsibilizatzea lortu nahi dugu, **beharrezkoa baita etorkinengana hurbiltzea eta etorkinen partaidetza** eta inplikazioa sustatzea ikastetxeetan.

Hemen bildu ditugun proposamenen bidez **ikasle etorkinen errendimendua hobetzeko** gakoak eskaini nahi ditugu eta, aldi berean, **bizikidetzeta eta gizarteratzea** hobetzen lagundu; betiere nazioartean onetsitako jardunbide egokien estrategia baten barruan, eskolaren eta etorkin-familien arteko harremanei dagokienez.

Jardunbide egokitzen hartzen da ikasle etorkinen errendimendua hobetzeaz gain, horien bizikidetzeta eta gizarteratzea hobetzeko lagungarria den jarduna. Bada kontuan izan beharreko beste elementu garrantzitsu bat: jardunbide horrek nazioartean duen babesa.

Familiek garrantzia ematen diote hezkuntzari. Garrantzi handia, gainera!

Familia bakoitzak ikastetxearekiko harremana modu askotara interpreta dezake. Alabaina, familia guztiek badituzte helburu jakin batzuk, komunak, seme-alabak eskolatzen dituztenean:

- Ikaskuntza.
- Eskola-emitza onak lortzea.
- Segurtasuna.


Familiak aliatu onenak dira euren seme-alaben heziketari dagokionez. Beraz, irakasleen eginkizuna izango da familiak hezkuntza-prozesuan txertatzea.

ETORKIN IZANIK, NIRE ARRAKASTA GORENA SEME-ALABEN HEZIKETA DA

Jatorriz atzerritarrak diren ikasleen familien kasuan, prozesu hori oztopatzen duten hainbat eragozpen izan daitezke:

- Hizkuntzarekin edo kulturarekin loturiko oztopoak.
- Antsietatearekin edo segurtasunik ezarekin loturiko sentimenduak.
- Mezu negatibo sistematikoak.
- Familian izandako eskola-esperientzia negatiboak, eta abar.

Eragozpen horiek eragina izan dezakete familia horien jakintza-mailan eta hezkuntza-zentroarekiko harremanean eta lankidetzan. Hala ere, **familia etorkin gehien-gehienei hezkuntza biziki interesatzen zaie:** seme-alabek hezkuntzan arrakasta izaten badute, euren migrazio-proiektuak arrakasta izan duela adieraziko du.



Tokian tokiko herritarren eta etorkinen arazoak eta egoerak oso antzekoak izan daitezke, gizarte-maila antzekoetakoa badira. Marjinazio-prozesuek lotura handia dute pobrezia-egoerekin eta egoera horien ondoriozko ezegonkortasunarekin (juridikoa, lan-arloan, etxebizitzan, osasunari dagokiona...). Arazo horiek gizarte-faktoreekin loturik daude, kultura- edo etnia-ezberdintasunarekin baino gehiago.

Ezberdintasun etniko-kulturalak ez dira izaten gizarteratze-arazoen eta eskola-jardueren eragile

Familiek parte hartzeko espazio naturala IGEak dira

Eskola-erakundearen xedea honako hau da: familien parte-hartzea eta inplikazioa ikastetxean.

Gure herrialdean, erakunde publikoak familien partaidetza eta inplikaziorako bi egitura nagusi garatu ditu:

- **Tutoretzak.**
- Ikasleen Gurasoen Elkartek (**IGE**).

Era berean, aita batek edo ama batek ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goreneko (**Eskola**

Kontseilua) kide izateko hautagaitza ere aurkez dezake, bere kabuz.

Familiek, oro har, gutxi parte hartzen dute eskola-erakundearen: Euskadin, guraso gehienak IGEetako kide dira baina ehuneko oso handi batek ez du parte hartzen IGEaren jardueretan, eta are gutxiago dira antolaketan inplikatzeko direnak.

EZ BADUGU HAIENGANDIK EZER ESPERO, EZ DUGU INOIZ EZER JASOKO

Oso zaila da partaidetzako dinamikak sortzea. Eta are gehiago immigrazioaren ikuspegi sinplistik **abiatuz hurbiltzen bagara**, eta horrekin batera, pertsonen portaerak oker interpretatzen badira, gaizki-ulertuak, bazterketa eta abar sortuz. Partaidetza hobeetako luketen hausnarketak eta eztabaidak gelditu ere egiten dira, besteak beste, “familia horiengandik ez dugulako ezer ere espero”. Eta maiz, horren guztiaren ondorioa “autobetetako profezia” izaten da, hainbestetan esanagatik azkenean benetan gertatzen dena.

Zentroek familiekiko irekita egon behar dute eta kultura-aniztasuna aintzat hartu behar dute. Adibidez, ikastetxeetako jantokietan eskaintzen diren menuak planifikatzen direnean. Harrera-prozesu bat ezarriz. Etorkinen ama-hizkuntzei tokia eginez. Kulturarteko Hezkuntzako proiektuak dinamizatzen dituzten irakasleen eginkizunari garrantzia emanez.

**Zerk eragozten
du familia
etorkinen
partaidetza eta
inplikazioa?**

Komunikazio-arrazoiak:

- Hizkuntza ez jakitea.
- Ikastetxean interpretazio-zerbitzurik ez izatea.
- Ikastetxeak honako hauen berri baino ez du ematen: arauak, kalifikazioak, diziplina...

Arrazoi sozioekonomikoak:

- Ordutegi-malgutasun eskasa edo ordutegiak bateragarriak ez izatea.
- Familia asko oso lanpetuta egoten dira, bizirauteko bada ere, bizi-baldintza oso ezegonkorrekin.

Arrazoi soziokulturalak:

- Eskolatzetik gabeko esperientziak aldeztu aurretik.
- Eskolatzeko-esperientzia negatiboak.
- Jatorrizko herrialdean beste hezkuntza-sistema bat izatea.

Faktore horien ondorioz segurtasunik ezarekin,

antsietatearekin, gutxiagotasunarekin eta ekarpenak egiterakoan gaitasunik ezarekin loturiko sentimenduak sortzen dira, motibaziorik eza eraginez.

Arrazoi instituzionalak, ikastetxearekiko mesfidantza:

- Funtzionamendu itxia izateagatik eta erraz ez irekitzeagatik.
- Mezu negatiboak helarazteagatik; mezu horien ondorioz, familia etorkinek ez dute sentitzen harrera ona egiten zaizkienik.

**Familia berriak
gizarteratzen laguntzea,
IGEen helburuetako bat**

**Familia etorkinen
parte-hartzea tokiko
familien parte-
hartzearen antzekoa da**

Hasieran, familia etorkinek partaidetza-malla txikiagoa dute, baina esperientzia-urteak igaro ahala, bertakoekin mailarekin parekatzen da.

4

Aldatzeko gakoak

#1 GAKOA Maila berean erlazionatzea

Hezkuntza-zentroak komunitatetzat hartu behar dira, familiak, irakasleak eta ingurunea erlazionatzen eta komunikatzen diren komunitatetzat. Bestela, ezinezkoa da hezkuntza-eginkizuna betetzea.

1_ Erlazio horiek koordinazio-erlazioak izan behar dute, ez mendekotasunezkoak. Horretarako, familien eta ikastetxeetako langileen artean berdinen arteko elkarriketa ezinbestekoa da. Irakasleek eta familiek bete behar duten egitekoa adostu egin behar da nahitaez.


2_ Helduen aldez aurreko esperientzia kontuan izan behar da:

- Pertsona bakoitzak jatorrizko herrialdean izandako **eskola-historiak** eragina izango du harrera-herrialdeko eskolarekiko eta irakasleekiko harremana ulertzeko moduan.



Ez dezagun ahaztu herrialde eta eskola-sistema bakoitzak bere modura ulertzen duela zer dagoen ongi eta zer gaizki.

- **Familien testuinguru sozioekonomikoak** ere baldintzatzaile izaten dira eskolarekiko jarrerari dagokienez, hezkuntza-itxaropenei dagokienez, hezkuntza-proiektuan inplikatzeari dagokionez eta profesionallekiko harremanei dagokienez.



Harreman onak
irakaskuntzako eta
ikaskuntzako edozein
prozesuren oinarri dira

3_ Harreman onak izateko, informazioa eta prestakuntza eman behar dira: estrategia eta baliabide berriak jaso behar ditugu, irakasleak hezkuntza-ekintzari datzekion harreman-alderdian gaitzen dituen estrategiak eta baliabideak, hain zuzen ere.

4_ Harreman pertsonalak dira gakoa: familiaren eta irakasleen artean, familiaren eta gainerako familien artean, GIE barruan, guztiak ere pertsonen arteko harremanak dira. Horretarako ezinbestekoak dira hurbiltasuna, enpatia, ezagutzeko interesa, adiskidetasuna eta prestasuna.

• **Komunikazioari lehentasuna eman behar diogu, informazio hutsaren gainetik:**

- Familiei adierazpidea ahalbidetzea.
- Gutxiagotasun-sentimenduak ezabatzea ahalbidetzeko espazioak sortzea.
- Familien kezkek eta urduritasunak entzutea.
- Familek behar dutenari dagokionez laguntza eta informazioa ematea.

- Familien ahaleginak balioestea...

- Informaziorako espazioak ez ezik, prestakuntzarako eta erabakiak hartzeko espazioak ere sortzea (batzorde mistoak, senitartekoen prestakuntza, ikasgeletan laguntzea...)

• **Eskolari dagokionez, familiak dituen itxaropenen gaineko interesa agertu behar dugu.**

Familia etorkinak egokitze-fasean daude; migrazio-proiektu bat erakitzen ari dira eta proiektu horrek seme-alaben eskolatzeari ematen zaion garrantzian eragina du. Egoera horren aurrean, hezkuntza-zentroak ezagutzeko benetako interesa, irekitzea eta elkarriketa eskaini behar ditu. Eta kontuan izan behar du **hezkuntzarekiko interesa ez dela soilik azterketak eta ikasturtea gainditzea.**

#2 GAKOA

Elkar ulertu ahal
izateko, lehenik elkar
ezagutu behar dugu

Elkar ezagutzea sustatu behar da, ikasleen artean nahiz familien artean.

Familien gizarte-arloko eta kultura-arloko interes eta premiak jaso. Eskola-ordutegitik kanpo topaketarako guneak bermatu. Elkartasun-esperientziak sortu. Familien errealitateari buruzko erreferentziak curriculumean txertatu.

#3 GAKOA

Egokitu dezagun
eskola familietara, ez
alderantziz

Ikastetxearen dinamikak familien lan-errealitatera egokitu behar ditugu. **Zentroa antolatzeko garaian, ezin dugu aintzat hartu gabe utzi familien lan-ordutegiak zeintzuk diren eta noiz dauden libre.** Familientzat problematikoak diren ordutegiak (ateak itxi eta irekitzeko ordua, ikastetxeko espazioan egon daitezkeen denbora, tutoretzetarako ordutegiak eta abar) egokitu egin beharko dira libre dauden denbora horren arabera.

#4 GAKOA

Ikastetxea hemen bizi da

Auzoko, guneko edota herriko errealitate zehatza ezagutu behar da. Ikastetxea ingurune jakin batean dagoelako eta ingurune horretan bizi delako. Horregatik, garrantzitsua da Etorkinen Elkarteekin harremanetan jartzea (halakorik baldin badago), bi helburu lortzeko:

- Elkarren artean jarduerak aprobeztatu eta koordinatzeko.
- Ikasle etorkinen familiekiko bitartekaritza- eta hurbilketa-lanak egin ditzaten eskatzeko, behar izanez gero.

Hitz egin dezagun hezkuntza bera: haiena

Ikasle etorkinen familien kultura-ohiturak harrerako komunitatearen oso bestelakoak izan daitezke. Eta familiek eskolan jarrita dituzten itzaropenak ere oso ezberdinak izan daitezke. Horregatik, **familia etorkinen eta hezkuntza-zentroen arteko harremana** ona izan dadin lortu nahi badugu, ikastetxeen funtzionamendua eta antolaketa —baita hezkuntza-sistema bera ere— ezagutzeko bideak eskaini behar dizkiegu.

Horretarako, hezkuntza-administrazioek familia horiei arreta eta laguntza emateko hainbat neurri abiarazi behar dituzte:

- **Ikasle etorkinen familiek ikastetxeetan integratzeko neurriak.** Nolanahi ere, zehaztaper bat egitea komeni da: ikastetxe bakoitzak esparru jakin bat finkatzen du ikasleen familiei arreta emateko eta euren seme-alaben irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuari nahiz ikastetxeari buruzko informazioa emateko, familiak etorkin nahiz bertako izan.
- **Harrera egiteko edo hezkuntza-sistamarako sarbidea izateko neurriak,** ikastetxean bertan egindako bileretan edo tokiko eskolatzeko-batzordeetan

ematen den informazioaren bidez, horri buruzko gidaliburuaren bitartez.

- **Interpreteen edota kultura-bitartekarien zerbitzu bat abian jartzea,** ikasle etorkinen familiei arreta ematea errazteko.
- **Hezkuntza Sailaren eta etorkinen elkartearen artean akordioak egitea,** kolektibo horren integrazioa bultzatzeko eskolaren eta gizartearen eremuetan.
- **Ikasle etorkinei eta haien familiei harrera egiteko eta arreta emateko zerbitzu edo bulego bat izatea.**

Familia etorkinei laguntza eta arreta
ematea: ahalegin partekatua